


# Marisol gehiago behar ditugu

GARA (25-7-2014)



**Andoni TOLOSA**  
«MORAU» Musikaria

**K**azetari-kronikak, aktualitateari lotutakoak gehienbat, alde batera utzita, oso gutxi idazten da euskal musikaz. Zientifikoa da. Aldeira ditzagun urtero euskaraz argitaratzen diren disko eta musikariekin lotura izan dezaketen bestelako egitasmoen kopurua, eta haien gainean idazten diren biografia, entsegu eta artikulua luzeen bildumatxo laburra, patrika batean sar daitekeena.

Egia da, eta zergatik idatzi beharko luke inork euskal musika eta musikariez? Nori axolako lioke? Noren interesa piztuko luke? Zer egin dugu inoren lerro gutxi batzuk me-

rezi ahal izateko? Eta hori horrela dela jakinda, zergatik ez duzue musikariok zuen kontuen gainean gehiago idazten? Esan dezake norbaitek. Autoestimua zaindu ezazue neska-mutilok!

Noski, erraza da esaten, nahikoa lan... kantuak egitearekin eta kontuak kuadratzearekin. Baina, hala eta guztiz ere, halako alferkuadrilla, konturatu al gara zer gutxi entzuten den musikarien ahotsa, kantuan, eta aldiari aldiroko kausaren baten alde, ala kontra, egiten diren prentsaurreko jendetsu horietako batean ez bada.

Eskerrak batzuek gutxienez, Marisolen

moduan, lanak txukun egiten dituzten. Musika eta musikarien mundua mamitu ondoren, kontatu egiten duten, idatzi egiten duten. Ezagutzen ez ditugun aldeak azalduz, musikariak eta haien ingurukoak haragitzuz, garaiei eta gertakizunei doinua jarriz, musikaren gainean txukun idatz daitekeela erakutsiz. Aleluia! Radioformuletako topikoetatik aparte, bada musikarion gainean zer kontaturik. Ausarta izategatik, gauzak gordetzeko, oroitzeko eta kontatzeko lana hartze gatik, pudoreari iskin egite gatik, eta ez hartu galdera alde sexistatik, zenbat Marisol beharko ditugu euskal musika «salbatzeko»?